

Ander Lipus: «Krisia badago, baina antzerkia egiten ari da»

Obra «berritzailea, ausarta eta lotsagabea» dela iritzita, 'Errauntsak' antzeleanari eman diote Donostia Antzerki Saria

Ainhoa Sarasola Donostia

Donostian euskarazko sei antzelean eman ziren laz, eta horien artean *Errauntsak* aukeratu dute XI. Donostia Antzerki Saria emateko. Artedramak, Le Petit Theatre de Paineak eta Dejabu panpin laborategiak antzeleanaren sortutako obraren kalitatea eta balioa nabarmendu ditu epaimahaiaik, «berritzailea, lotsagabea, ausarta eta komunikatzeko gaitasun handikoa» dela iritzita. Hilaren 27an, Antzerkiaren Nazioarteko Egunean egingo da sariak banatzeko ekitaldia, Viktoria Eugenia antzerkioan, eta saritutako lana taularatuko dute ekitaldiaren ostean.

Hileta batean berriro elkartzeko den aspaldiko lagun talde bat aurkeztzen du obrak, belaunaldi jakin baten erretratua egiteko. Ipar eta Hego Euskal Herriko aktoreak elkarlanean aritu izana «aberastarritzat» jo du Belen Cruzek, Itziar

Bilbaok, Arantxa Gurmendik, Agus Perezek eta Norika Chiapuskok osatutako epaimahaiaik. Euskalki eta hizkera molde ezberdinetan «maisutasunez» uztartu dituztela eta euskal kantutegiko jatorri, estilo eta garai ezberdinetako kantak «ausardiaz» baliatu dituztela uste dute epaimahaiaikideek. Halaber, Ximun Fuchsen zuzendaritza lana nabarmentzeko dela iritzi diote. Lazko azaroan estreinatutako obra, eta publikoaren aldetik jasotako harrera aipatu du epaimahaiaik, «normalean antzokietara joaten ez den ikuslea erakartzea lortu baitu».

Saria «ohore bat» izan da Artedramako Ander Lipusentzat. Kri-si garaioan «alarriak pizten» direla eta, Berriak euskarazko antzerkiaren egoerari buruz iragan hilean publikatutako artikulua bat ekarri du gogora. Laz Sarea osatzen duten antzokietan euskarazko 135 emanaldi baino ez zirela izan jasotzen zuten albisteak, hots, antzoki publikoetan %60 jaitsi zirela saioak. Datuoi ikuspegi bakoitza ematearen, Artedramak ia 61 emanaldi egin zituela azaldu du aktoreak. «Horrek esan nahi du euskal antzerkia ez dela bakarrik Sarea, beste tresna ba-



Artedramak, Le Petit Theatre de Paineak eta Dejabu panpin laborategiak sortu dute *Errauntsak*. NICOLAS MOLLO

tzuk dituela eta baliatzen dituela. Krisia badago, baina euskal antzerkia egiten ari da». Datuen gainetik, «euskal antzerkiak beste bide batzuk ere jorratzen dituela eta jorratu behar dituela» uste du.

Obra sortzeko Ipar zein Hego Euskal Herriko konpainiak elkarlanean aritu izana nabarmendu du Lipusek, eta pozik agertu da egindako apustuarekin. «Donostia guretzat plaza polita da, zorionez antzokiak nahiko betetzen ditugu, eta uste dut hor ere badagoez la gako bat: guk geuk, artistok, ikus-entzule batzuk erakartzea lortu behar dugu. Uste dut euskal antzerkiaren inguruan hausnarketa dezentetik dagoela oraindik egiteko eta denok egin behar dugula horren aldeko apustua».

Sariagatik esker oneko agertu da Urko Redondo Dejabuko kidea ere, eta *Errauntsak* lanarekin «beste sari potolo bat» jaso dutela uste du: «Ikus-entzule batzuk izan ditugu hor, emanaldi guztietan. Horrek poz handia ematen du, eta indarra aurrera jarraitzeko». Lanaren berri gizaratean ahozahozabalduta dela nabarmendu du aktoreak. «Kulturarekin gertatu behar lukeen baina oro har gertatzen ez den zerbait» baita, haren ustez.

Harri Xuri egonaldia

Ainize Txopitearen margolan bat jasoko dute *Errauntsak*-en egileek sari gisa. Horrekin batera, 10.000 euro jasoko dituzte, eta 2013a baita lehen beste antzeleanik prestatzen badute, Donostian taularatu-

tzeko aukera izango dute. Modu horretan, sorkuntza berriak egitea erraztu nahi dutela azaldu du Denis Itxaso Kultura zinegotziak, eta, bide berean, aurten berrietasun bat gehitu diote sariari. Izan ere, sarituek Luhusoko (Lapurdi) Harri Xuri sorkuntza gunean bi aste egonaldia egiteko aukera izango dute ikuskizun berri hori prestatzeko. Hiru konpainiak elkarrekin beste lanen bat sortzeko gogoz daudela azaldu du Lipusek.

Laz, euskarazko sei antzeleanen hamazazpi emanaldietan 3.490 ikusle bildu zirela azaldu du Ainhoa Beola Euskara zinegotziak. Haren hitzetan, Donostian euskarazko antzerki programazioari eutsi egin zaito, eta aurten ere eutsiko zaitola ziurtatu du.